




### Hondakin nuklearrak begibistatik kendu nahian

**A**ktibitate handiko hondakin erradioaktiboak behin-betirako lurrazpian biltegiatu ahal izateaz ametsa da oraindik. Europako



Gaur-gaurkoz ez dago aktibitate handiko hondakin erradioaktiboak segurtasun osoz eta behin-betirako biltegiatzeko sistemarik. FEBEX programa horretaz arduratuko da hurrego bi urteetan. Bentonitaz beterik dagoen tanga ikus dezakezu argazkian; bere inguruan 500 bat detektagailu kokatu dituzte.

Elkarteko FEBEX programan, ordea, lanean dihardute aukera desberdinak aztertzen. Horieta bat hurrengo bi urteetan jorratuko dute bentonita izeneko materialaren jorkaera behatzen, etorkizunean hondakinok substantzia honek inguraturik metatu ahal izango direla-koan.

FEBEX programa arlo horretan lanean ari diren talde desberdinen ahaleginak koordinatzeko sortu zen eta 1.200 milioi pezetako aurrekontua du. Askotxo dela pentsa dezakezu, irakurle, baina kontua egin orain arte ere ehundaka milioi inbertitu direla I+G programatan.

Gaur egun aktibitate handiko hondakinak zentral nuklearretan bertan biltegiatzen dira behin-behineko irtenbide gisa eta kasu askotan ondoren lurperatu egiten dira. Biltegiatzeko sistema erabat fidagarriak ez dagoela esan izan da askotan eta hortik ulertu behar dira, hain zuzen, "hilerri nuklearra" hitzak

entzun orduko pizten diren polemikak. FEBEX programakoak hondakinak biltegiatzeko leku egokiak bilatzen aritu dira eta bentonitazkoa aukera egokia izan daitekeela uste dute. Buztin absorbatzaile eta dekolortzailea da bentonita eta orain baino lehen ere industrian erabili izan da. Bere ezaugarriak direla medio, hondakinaren aktibitateari eutsi ahal izango diola uste da. Proiektua, arestian esan bezala, bi urtetan burutuko da CIE-MAT izeneko erakundearen. Bentonitazko hesi moduko egitura sortuko dute lehenik eta 500 bat detektagailu inguru koka-

tuko dituzte horren inguruan. Berotu eta hidratatu egingo da hesia eta bere portaera zehatz-mehatz erregistratuko dute detektagailuek; azkenik, hesia erabat hoztu eta desmantelatu egingo da, jasotako informazioa aztertu ahal izateko. FEBEX programaren baitan, bestalde, Suitzako Grimsel herriaren inguruan granitoa zulatuko dute 500 metroko sakoneko biltegia eraikitzeko. Horren barruan ere lanean segituko dute, behin-betiko biltegiaren eskizian.

### Auto bizkorra jende bizkorrarentzat

**U**dazken honetan merkaturatzekoa da "auto bizkorra". Garapena oso ezkutuan egin bada ere, gero eta gauza gehiago ari dira auto-kontzeptu berri honi buruz kaleratzen. Hiri-bokazioarekin jaitako auto honek bi eserleku eta 2,5 m-ko luzera izango ditu. Autoa erabat modularra da. Ondorioz, bertsio

asko izateaz gain, erabiltzaileak autoaren elementu asko aldatu ahal izango ditu fabrikatzaileak eskainiko dizkion "kit bereziekin". Aldatu ahal izango diren elementuen artean hauek aipa daitezke: eserlekuak, hauen zorroak, aginte-mahaiko elementuak eta baita kabina bera ere.

Dalimler-Benz eta SGMU enpresek bultzatuta MCC konpainia ari da autoa produzitzen. Produkzio-sistema ere aipagarria da. Izan ere, 750 auto eguneko egingo dituzte Hambach-eko (Lorena) plantan. Autoak piezaz pieza osatu behar diren, bost modulo muntatuko dira, autoa bost ordu baino gutxiagotan osatuta dagoelarik. MCCren hornitzaileek moduluak (kabina edo motorea, esatera-ko) muntatuta eramaten dituzte haren muntai kateara. Beraz MCCk moduluak elkarrekin lotzea baino ez du egiten. Halaber, garraio-kostuak gutxiagotzeko, MCCren hornitzaileak Hambach inguruetan ere jarri dituzte beren lantegiak.



Aurki ikusiko omen dugu gure kaleetan zehar moduluka egindako automobila. Kit bereziei esker, automobila ia egunero estrenatzeko aukera ere izango omen da. Txikia eta azkarra da irudiotan ikusten den prototipoa.

